*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Murgian, bi mila eta hamazortziko abenduaren hamahiruan, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

**ALKATEA**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
JUAN MANUEL LARRAZÁBAL NÚÑEZ JN. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)
LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA JN. (EAJ-PNV)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)
SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)
JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)
**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA**
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)

**2018KO AZAROAREN 8 ETA 27AN IZANDAKO OHIKO ETA EZOHIKO BILKUREN AKTAK, HURRENEZ HURREN, ONARTZEA.**

2018ko azaroaren 8 eta 27ko ohiko eta ezohiko bilkuren aktak ikusirik ondorengo zuzenketak egin dira:

En Murgia a trece de diciembre de dos mil dieciocho, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DON JUAN MANUEL LARRAZÁBAL NÚÑEZ (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)
DON LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA (EAJ-PNV)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)
DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)
DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)

**CONCEJAL QUE NO ASISTE**
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

**1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS ORDINARIA Y EXTRAORDINARIA CELEBRADAS LOS DÍAS 8 Y 27 DE NOVIEMBRE DE 2018 RESPECTIVAMENTE.**

Vistas las actas de la sesiones ordinaria y extraordinaria de los días 8 y 27

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

de noviembre de 2018 se realizan las siguientes correcciones:

2018.11.08ko ohiko bilkuraren aktan, 4.- 4/2018 Kreditu gehigarriaren espedientea izeneko aztergaian, Sautu zinegotzi jaunak azaldu duenean aurka bozkatu duela uste duelako Udalak hainbat higiezin dituela, *mantentze-gastuak udalarentzat zama garrantzitsua izan daitezkeela* eta orain interesa duena Domingo de Sautu kaleko 38. zenbakian dagoen eta kultura etxea hartuko duena dela, *Eguiluz zinegotzi jaunak azaldu du ados dagoela Sautu jaunarekin, batez ere kontuan izanda Oroko Andre Mariaren Ikastetxe Publikoan erabilgarri izango diren lurrak eta eraikinak direla-eta, baina gaur egun Kultura Etxerako aukera Aldundiari eskatutakoa eta berorrek diruz lagundutakoa dela.*

En el acta de la sesión ordinaria del 08.11.2018 en el punto 4.- Expediente de crédito adicional 4/2018 cuando el Concejal Sr. Sautu explica su voto en contra es porque piensa que el Ayuntamiento ya tiene varios inmuebles *y los gastos de mantenimiento pueden suponer una carga importante para el Ayuntamiento,* y el que interesa ahora que es para la casa de cultura es el de la C/Domingo de Sautu 38, *manifestando el Concejal Sr. Eguiluz estar de acuerdo con el Sr. Sautu sobre todo teniendo en cuenta la disponibilidad de terrenos y edificios que se va a tener en Colegio Público Virgen de Oro, pero a día de hoy la opción de Casa de Cultura es la que se ha solicitado a Diputación y concedido subvención por parte de ésta.*

Idazkaritzak ez du aztergai honetan jaso espedienteko sarrera eta gastuen laburpena, ondoren zehazten den bezala:

La Secretaria en ese punto ha omitido recoger el resumen de ingreso y gastos del expediente como a continuación se detalla:

| GASTUEN PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 1522.622.020 | Murgiako Domingo de Sautu kaleko 22. zenbakiko higiezina (34/7 lursaila) erostea. | 343.577,00 |
| 410.227.110 | 2018ko Osasun Planeko jarduketak | 10.440,99 |

**GASTUEN ALDAKETA GUZTIRA ……………………………… 354.017,99 €**

| SARREREN PARTIDA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 87001 | Diruzaintzako gastu orokorretarako soberakina | 350.510,79 |
| 39630 | Abeltzainen ekarpena osasun-planerako | 3.507,20 |

**SARREREN ALDAKETA GUZTIRA ………………………….. 354.017,99 €**

| PARTIDA DE GASTOS | DENOMINACIÓN | IMPORTE |
|---|---|---|
| 1522.622.020 | Compra inmueble C/Domingo Sautu, 22 (parcela 34/7) de Murgia | 343.577,00 |
| 410.227.110 | Actuaciones del plan sanitario 2018 | 10.440,99 |

**TOTAL MODIFICACIÓN DE GASTOS………………………… 354.017,99 €**

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366
✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

| PARTIDA DE INGRESOS | DENOMINACIÓN | IMPORTE |
|---|---|---|
| 87001 | Remanente Tesorería gastos generales | 350.510,79 |
| 39630 | Aportación ganaderos plan sanitario | 3.507,20 |

**TOTAL MODIFICACIÓN DE INGRESOS…………………….. 354.017,99 €**

Era berean, oraindik gauzatu gabe dauden eta Otsoa Eribeko zinegotzi jaunak azaldu zituen Euskal Fondoko proiektuei zuzendutako zenbatekoari buruz Idazkaritzan sortutako zalantzaren aurrean, 7.- TXOSTENAK izeneko aztergaian zehazten da P286k-18 *Mejoramiento de los sistemas de agua potable y saneamiento en la comunidad de Las Azucenas. San Carlos,* Nikaraguakoa, izenekoari *12.591,14* zuzenduta daudela eta ez 11.991,40 euroak, 23.100 euroko partida agortu arte delako.

Así mismo, ante la duda surgida a la Secretaria sobre el importe destinado a los proyectos de Euskal Fondoa pendientes de ejecutar, que fueron informados por el Concejal Sr. Otsoa Eribeko, en el punto 7.- INFORMES, se concreta que la cuantía destinada al P286k-18 *Mejoramiento de los sistemas de agua potable y saneamiento en la comunidad de Las Azucenas. San Carlos* de Nicaragua, son *12.591,14* y no los 11.991,40, porque es hasta agotar la partida de 23.100€.

Udalbatzak aho batez onartu ditu aktak, azaroaren 8ko 4. aztergaiaren inguruan azaldutako zuzenketekin.

La Corporación por unanimidad aprueba las actas con las correcciones expuestas del punto 4 respecto a la del día 8 de noviembre.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

**2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Alkatetzak 2018.11.05eko 333. zk.ko dekretutik 2018.12.07ko 389.era arte eman dituen xedapenen berri eman eta ondoko gai hauei buruzkoak dira: obra txikietarako baimenak: Ametzaga Zuiako 72/1 lursailaren itxituran bi zutabe egiteko; Euskalteli, Murgian FITH sarea zabaltzeko; NED Suministro GLP enpresari, Domingo de Sautu kaleko 34. zenbakian gas-hartunea egiteko; Ametzaga Zuiako Administrazio Batzarrari, Arietako bideko zorua konpondu eta arekak konpontzeko; Sarriako 5/3 lursaileko eraikinean obra txikiak egiteko; Jugoko 211/1 lursaileko etxebizitzari erantsitako bi eraikin eraisteko; Bitorianoko 97/2 lursailean PCVzko hodiarekin kanalizazioa eta 4 kutxeta egiteko. Ametzaga Zuiako 982/1 lursailean bi behor edukitzeko baimena. Bigiliano 6ko Jabeen Elkarteari obrak

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el decreto nº 333 del 05.11.18 al 389 del 07.12.18 referentes a licencias de obras menores para ejecutar dos columnas en el cierre de la parcela 72/1 de Ametzaga Zuia, a Euskaltel para el despliegue de la red FITH en la localidad de Murgia, a NED Suministro GLP para realizar una cometida de gas en la C/Domingo de Sautu 34, a la Junta Administrativa de Ametzaga Zuia para reparación del firme y limpieza de cunetas del camino de Arieta, para obras menores en el edificio de la parcela 5/3 de Sarría, para el derribo de edificios anexos a la vivienda de la parcela 211/1 de Jugo, para realizar una canalización con tubo de PVC y 4 arquetas en la parcela 97/2 de Bitoriano, licencia para la tenencia de dos yeguas en la parcela 982/1 en Ametzaga Zuia,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

egiteko 309. Dekretu bidez emandako baimena baliogabetzea eta EIOZ zergaren likidazioa baliogabetzea, bikoiztuta egoteagatik. Murgiako 1134/2 lursailean egiten ari diren lanak geldiaraztea, baimenik ez dutelako eta, gainera, ezin direlako legeztatu. Ametzaga Zuiako Mendibe kaleko 4. zenbakian dagoen etxebizitzari hornidura-zerbitzuan alta emateko baimena. Udalerriko bi bizilaguni 400 eta 500 euroko diru-laguntzak ematea, udan bi neskatila etxean hartuta izateagatik; hirugarren bati diru-laguntza ukatzea eskabidea laguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako epez kanpo aurkezteagatik eta azken honek ukapen horrengatik jarritako errekurtsoa ez onartzea. Ibilgailuen zergaren errolda zuzentzea, behin betiko bajengatik. Diru-laguntzak ematea: Aperregiko Batzarrari gehienez ere 1.525 €, herriko jaietarako, eta Giliernako Batzarrari 2.450 € jaietarako. Aldundiaren deialdiari diru-laguntza eskaera aurkeztea, abere-osasunaren programa kudeatzeko. Ezgaitasuna duen herritarrari aparkatzeko behin betiko txartela ematea. Ordutegi luzatuko zerbitzuaren tasaren urriko eta azaroko erroldak onartzea: 609,00 € eta 597 €, hurrenez hurren. Musika Irakaskuntzako tasaren errolda onartzea: matrikula eta urria, 9.369,76 €. Murgiako argiteria publikorako 50 w-ko farol villa motako led teknologiako luminariak erosi eta jartzeko 1. lotea Electrotécnica de Urbina S.A. enpresari esleitzea (36 unitate eta 0 luzapen, unitateko 293,17 € gehi BEZ) eta 2. lotea Ekoleds Innovations S.L. enpresari, hau da, 50 w-ko farola motako led teknologiako luminariak (89 unitate, unitateko 199 € gehi BEZ) 105 w-ko villa motakoak (12 unitate, unitateko 239 € gehi BEZ). Santiago Sáenz de Lafuente Iturrate behin-behineko idazkari izendatzea, titularra 18ko azaroaren 12tik 16ra ez delako egongo. Sarria eta Aperregiko Batzarrek herriko jaietarako utzitako udalaren musika-ekipoa egoki erabiliko dela bermatzeko utzitako

revocación de la licencia concedida por Decreto 309 para ejecutar obras en Biguillano 6 por la Comunidad de propietarios y anulación de la liquidación del ICIO por estar duplicada, paralización de las obras en ejecución de la parcela 1134/2 de Murgia por carecer de licencia además de no ser legalizables, autorización de alta en el servicio de abastecimiento de vivienda sita en la C/Mendibe 4 de Ametzaga Zuia, concesión de subvenciones a 2 personas vecinas del municipio por importes de 400€ y 500€ respectivamente por la acogida de dos niñas durante el verano, denegación a una 3ª por presentar la solicitud fuera del plazo previsto en las Bases reguladoras de las ayudas y desestimación del recurso interpuesto por esta última frente a dicha denegación, rectificación del Padrón del impuesto de vehículos por bajas definitivas, concesión de subvenciones a la Junta de Aperregi para las fiestas de la localidad por importe máximo de 1.525€, a la Junta de Guillerna/Gilierna para las fiestas 2.450€, presentación de solicitud de subvención al a convocatoria de Diputación para la gestión del programa de sanidad animal, concesión de tarjeta de estacionamiento a vecino con discapacidad con carácter definitivo, aprobación de los padrones de la tasa del Servicio de horario ampliado de los meses de octubre y noviembre por importes de 609,00€ y 597€ respectivamente, aprobación del padrón de la tasa por la Enseñanza musical matrícula y mes de octubre por importe de 9.369,76€, adjudicación del lote 1 del suministro e instalación de luminarias de tecnología led tipo farol villa de 50w en el alumbrado público de Murgia a Electrotécnica de Urbina S.A. 36 unidades y 0 alargos al precio de 293,17€/u más IVA y lote 2 luminarias tipo farola de led de 50W 89 unidades) a 199€/u más IVA y tipo villa de 105W(12 unidades) a 239/u más IVA adjudicadas a Ekoleds Innovations S.L., nombramiento de Santiago Sáenz de

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

fidantzak kitatzea. Murgiarako lurperatutako edukiontziak erosi eta jartzeko kontratazio-espedientea onartzea. Arabako Saskibaloi Federazioari baimena ematea abenduaren 29 eta 30ean Palatuko instalazioko saskibaloi-kantxak erabiltzeko, eta Atzabal Mendi Taldeari 25. urteurrena ospatzeko udalaren lokala erabiltzeko. Kontratu txikien esleipena: Javier Ruiz de Larrinagari 1.800 euro, 2018/19 denboraldirako publizitate-babesarena; VERMICAN Soluciones de Compostaje S.L. enpresari 6.019,75 €, aireztagailudun lau konpostagailu eta pertzak hornitzeko eta prestakuntza-zerbitzua emateko. Ohiko helbide diren herriko etxebizitzen jabeei OHZ zergan hobariak ematea, familia ugariko titularrak izateagatik edo diru-sarrerengatik. Herritar bati euskara ikasteko 170,25 euroko diru-laguntza ematea . Oroko Santutegiaren Zuzendaritza Batzordeari 4.191,92 euroko diru-laguntza ematea, eraikinean egindako gastuetarako. Murgiako UE-2 unitatearen Ituntze Batzarraren eraketa onartzea. Murgiako 29/7 lursailean hainbat jarduketa egitea agintzen duen 235. Dekretuaren aurka Arabako Lanketa SLU enpresak jarritako errekurtsoa ez onartzea eta 857,29 euroko isuna jartzea aipatu betearazpen-agindua ez betetzeagatik. Zerbitzu, zuzkidura, diru-laguntza, OHZren hobari eta fidantzen itzulketari dagokien 19/2018 ordainketa-aginduen zerrenda (215.778,13 €) onartzea. Mª Elisa Pérez de Nanclares Andrés Fundazioak bere higiezinak 2018ko OHZ zergatik salbuetsita egoteko aurkeztutako errekurtsoa onartzea. Koartangoko herritar bati Zuiako EALZ zentroan sartzeko baimena ematea.

Lafuente Iturrate como Secretario accidental durante la ausencia de la titular del 12 al 16 de noviembre/18, cancelación de fianzas depositadas por las Juntas de Sarría y Aperregi como garantía del adecuado uso del equipo de música municipal cedido para las fiestas patronales, aprobación del expediente de contratación del suministro e instalación de contenedores soterrados en Murgia, autorización a la Federación alavesa de Baloncesto para utilizar las canchas de baloncesto de las instalaciones de Palatu los días 29 y 30 de diciembre y a Atzabal Mendi Taldea la utilización de un local municipal para la celebración de su 25 aniversario, adjudicación de contratos menores de patrocinio publicitario con Javier Ruiz de Larrinaga para la temporada 2018/19 en el precio de 1.800€, con VERMICAN Soluciones de Compostaje S.L. para el suministro de 4 unidades de compostadoras con aireadores y cubos y servicio de formación en el precio de 6.019,75€, concesión de diversas bonificaciones en el IBI a personas vecinas titulares de viviendas que constituyen el domicilio habitual por ser titulares de familia numerosa o por ingresos, concesión de subvención a una vecina de 170,25€ para estudio de euskera, concesión de subvención a la Junta Rectora del Sº de Oro por importe de 4.191,92€ para gastos realizados en el citado edificio, aprobación de la constitución de la Junta de Concertación de la UE-2 de Murgia, desestimación del recurso interpuesto por Arabako Lanketa SLU frente al Decreto 235 que ordena ejecutar determinadas actuaciones en la parcela 29/7 de Murgia e imposición de multa por incumplimiento de la citada orden de ejecución por importe de 857,29€, aprobación de la relación de mandamientos de pagos 19/2018 por importe de 215.778,13 referente a servicios, suministros, subvenciones, bonificaciones I.B.I. y devolución de fianzas, estimación del recurso interpuesto por la Fundación Mª

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Elisa Pérez de Nanclares Andrés de exención del IBI de sus inmuebles en el año 2018, autorización para el ingreso de una vecina del municipio de Kuartango en el CRAD de Zuia,

Murgiako 1134/2 lursailean egiten ari diren lanak klandestino deklaratzen dituen 357. Dekretuaren berri galdetu eta alkateak jakinarazi du itxitura bat baimenik gabe egiten ari direla eta, gainera, ez dituela hirigintza-araudian eskatutako baldintzak betetzen. Halaber, Arriorano inguruan abeltzaintzako eskortaren inguruan egindako ordainketari buruz galdetu eta alkateak horren berri eman du

Preguntan sobre el Decreto 357 por el que se declaran clandestinas las obras en ejecución de la parcela 1134/2 de Murgia, informando el Alcalde que están ejecutando un cierre sin licencia y además no reúne las condiciones exigidas en la normativa urbanística. Igualmente se pregunta sobre un pago realizado sobre manga ganadera en la zona de Arriorano, informando el Alcalde al respecto.

Udalbatzak ebazpenen berri izan du.

La Corporación se por enterada de las resoluciones emitidas.

**3.- POSTA OFIZIALA**

**3.1.- Arabako Foru Aldundia:**

- Nekazaritza eta Abeltzaintza Sailak, 2018ko Abere Azokako albaitari-zerbitzuaren 113,58 euroko tasak bidali ditu.
- Euskara, Kultura eta Kirol Sailak gogoratu du amaitzear dagoela musika-prestakuntzarako diru-laguntza zuritzeko epea, eta kirol-instalazioen aldaketari buruzko informazioa 2018.11.22a baino lehen bidaltzeko eskatu du.
- Ingurumen eta Hirigintza Sailak: Lukiano eta Bitoriano eta Domaikia eta Jugo bitarteko A-4415 eta A-4413 errepideen, hurrenez hurren, paretik zuntz optiko bidez bada zabala jartzeko kanalizazio-lanen zein Aperregi eta Bitoriano eta Murgia eta Zarate bitarteko lanen interes publikoa adierazteko espedienteen hasierako onarpenaren Foru Aginduak bidali ditu; Arabako Lurralde Historikoan HAPO egiteko prozeduraren gidak igorri ditu; eta 2017-2030eko Arabako Hiri Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Plan berria onartu dela jakinarazi du.

**3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

**3.1.- Diputación Foral de Álava:**

- Agricultura y Ganadería remite las tasas por servicios veterinarios de la Feria Ganadera 2018 por importe de 113,58€
- Euskera, Cultura y Deportes recuerda la finalización del plazo para justificar subvención de formación musical y solicita la remisión de información sobre la modificación de las instalaciones deportivas antes del 22.11.2018
- Medio Ambiente y Urbanismo remite Ordenes forales de aprobación inicial de los expedientes de declaración de interés público de las obras de canalización de instalación de banda ancha fibra óptica paralela a las Ctras A-4415 y A-4413 entre Lukiano y Bitoriano y Domaikia y Jugo respectivamente, así como la de las obras entre Aperregi y Bitoriano y Murgia y Zárate, remite guías del procedimiento de elaboración del PGOU en el Territorio Histórico de Álava e informa de la aprobación del nuevo Plan de Prevención y Gestión de residuos urbanos de Álava 2017-2030.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

- Diputatu Nagusiak jakinarazi du materia organikoaren gaikako bilketa ezartzeko diru-laguntza ukatu duela, partida agortu delako.

- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak: 2018/19ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura diruz lagundutako Domingo de Sautu 22 kaleko eraikuntza eta lursaila erostearen inguruko lana esleitzeko epea jakinarazi du; 2019ko Obra Txikien eta Auzokideen arteko Harremanak Sustatzeko deialdia onartu dela jakinarazi du; 2017ko Kontu Orokorra bidaltzeko eskatu du; eta 2018/19ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura diruz lagundutako Palatuko udalaren kirol-eremua birmoldatu eta handitzeko lanaren proiektua eta dokumentazio administratiboa bidaltzeko luzapenaren Foru Agindua jakinarazi du.

- Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Sailak: Domingo de Sautu kaleko espaloietako beheramenduak kentzeko errekerimendua jakinarazi du; eta 2004-2015eko Errepideen Plan Integrala 2016-17 epealdirako eguneratu, aldatu eta berrikusteko aurreproiektuaren jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidean aurkeztutako alegazioak bidali ditu.

**3.2.- Eusko Jaurlaritza:**

- Etxebizitza Sailak, eraikinen ikuskapen teknikoei buruz Udalei zuzendutako jardunaldiak deitu ditu.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, liburutegietako funtsetarako diru-laguntzaren ebazpena jakinarazi du.

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, paper tinbreduna eskatu eta justifikatzeko izapide elektronikoaren zerbitzua martxan jarri dela jakinarazi du.

- Segurtasun Saileko Arabako Trafikoak 18.12.02an izango den XXXIII.

- Diputado General comunica la denegación de subvención para la implantación de la recogida selectiva de materia orgánica por agotamiento de partida.

- Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial comunica el plazo para adjudicar la obra referente a la compra de edificación y parcela de la C/Domingo de Sautu 22 subvencionada con cargo al Plan foral de Obras y Servicios 2018/19, informa de la aprobación de la convocatoria de Obras Menores y Promoción de Relaciones Vecinales 2019, solicita la remisión de la Cuenta General 2017 y comunica la Orden foral que prorroga la remisión del proyecto y documentación administrativa de la obra remodelación y ampliación de la zona polideportiva municipal de Palatu subvencionada con cargo al Plan Foral de Obras y Servicios 2018/19.

- Infraestructuras Viarias y Movilidad comunica requerimiento para retirada de rebajes de aceras en la C/Domingo de Sautu y remite la contestación a las alegaciones presentadas en trámite de información pública y audiencia al anteproyecto de la actualización, modificación o revisión del Plan integral de Carreteras de Álava 2004-2015 para el periodo 2016-17.

**3.2.- Gobierno Vasco:**

- Vivienda convoca a jornadas sobre inspecciones técnicas de edificios dirigidas a Ayuntamientos.

- Cultura y Política Lingüística informa la resolución de subvención de fondos para bibliotecas.

- Gobernanza pública y Autogobierno comunica la puesta en marcha del servicio de tramitación electrónica para realizar la petición y justificación de papel timbrado.

- Seguridad, Tráfico de Álava solicita informe sobre prueba ciclista XXXIII Trofeo S. Andrés el 02.12.18.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

San Andres Saria txirrindularitza-probari buruzko txostena eskatu du.

- Osakidetzak Zuiako Osasun Zentro berriari buruzko idazkia bidali du. Gai honen inguruan alkateak jakinarazi du bihar erakunde horretako langileekin geratu dela litekeen kokapen-aldaketa proposatzeko, hau da, Bitorianoko bidegurutzera eramatekoa.

- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak 18.11.28ko ebazpenaren kopia bidali du, zeinaren bitartez azpiegituretan esku hartzen duten tokiko garapen-estrategiarako eragiketak ezartzeagatik laguntzak ordaintzeko agintzen den.

- Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, Auzolandegiak programaren berri eman du.

**3.3.- Herri Kontuen Euskal Epaitegia:**

- EAEko Erakundeen 2016ko kontuei buruzko txostena fiskalizatzearen emaitza bidali du.

**3.4.- EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea:**

- 2018.12.03an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpena bidali du.

**3.5.- Zuiako Bake Epaitegia:**

- Udaletxean ospatuko den ezkontzaren espedientea bidali du.

**4.- ZUIAKO UDALERRIKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA (ESEP) ETA ZUIAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA PLANA ONARTZEA. 2018-2022 ALDIA.**

Alkateak, Informazio Batzordean horren lehendakariak azaldutako errepikatuz, Gorbeialdeko Koadrilako Euskara Teknikariak 2018-2022 aldirako egindako Zuiako Udalerriko Euskararen

- Osakidetza remite escrito en relación al nuevo Centro de Salud de Zuia. Respecto a esto, el Alcalde comenta que mañana ha quedado con personal del citado organismo para plantearles el posible cambio de ubicación al cruce de Bitoriano.

- Desarrollo Económico e Infraestructuras remite copia de la resolución del 28.11.18 por la que se ordena el pago de ayudas por implementación de operaciones para estrategias de desarrollo local participativo en infraestructuras.

- Empleo y Políticas Sociales informa sobre programa Auzolandegiak.

**3.3.- Tribunal Vasco de Cuentas Públicas:**

- remite resultado de la fiscalización del informe sobre las cuentas de las Entidades de la CAE 2016.

**3.4.- EUDEL-Asociación de Municipios Vascos:**

- Remite la declaración del Día Internacional del Euskera el 03.12.2018.

**3.5.- Juzgado de Paz de Zuia:**

- Remite expediente de matrimonio a celebrar en el Ayuntamiento.

**4.- APROBACION DEL PLAN DEL USO DEL EUSKERA (ESEP) DEL MUNICIPIO DE ZUIA Y DEL PLAN DEL USO DEL EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE ZUIA. PERIODO 2018-2022.**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la comisión informativa por el Presidente de la misma, da cuenta del Plan del uso del Euskera (ESEP) del municipio de Zuia y del Plan del uso del Euskera del Ayuntamiento

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Erabilera Plana (ESEP) eta Udalaren Erabilera Plana azaldu ditu.

correspondiente al periodo 2018-2022, elaborado por el Técnico de Euskera de la Cuadrilla de Gorbeialdea.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

LEHENENGOA.- 2018-2022 aldirako Zuiako Udalerriko eta Zuiako Udalaren Euskararen Erabilera Planak onartzea.

PRIMERO.- Aprobar los Planes del uso del euskera del municipio de Zuia y del Ayuntamiento de Zuia para el periodo 2018-2022.

BIGARRENA.- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari erabaki honen kopia bidaltzea.

SEGUNDO.- Remitir copia de este acuerdo al Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.

**5.- HERRITARREK HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN PARTE HARTZEKO PROGRAMA ONARTZEA**

**5.- APROBACIÓN DEL PROGRAMA DE PARTICIPACION CIUDADANA DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, Zuiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa idazteko lanen talde esleipendunak aurkeztutako Herritarrek Parte Hartzeko Programaren berri eman du, HAPO eta IEA idatzi aurreko Hirigintza Informazioari buruzko dokumentazioarekin batera. Dokumentazio hori, babes zibil, ingurumen, kultura-ondare eta ingurune naturalaren inguruan eskumena duten hainbat administraziori dauden arriskuei eta antolamenduan errespetatu beharreko ingurumenaren eta kultura-ondarearen eta ingurune naturalaren babesaren arloko baldintzei buruz eskatutako informazioa jaso ondoren egin da. Era berean, udalerriko Administrazio Batzarrei ere eskatu zaie dagokien esparruko ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa.

El Alcalde reiterando lo expuesto en la comisión informativa da cuenta del Programa de Participación Ciudadana presentado por el equipo adjudicatario de los trabajos de redacción del Plan General de Ordenación Urbana y Estudio Ambiental Estratégico de Zuia, junto con la documentación referente a la Información Urbanística previa a la redacción del PGOU y EAE, que ha sido elaborada, tras haber recibido la información solicitada a las distintas administraciones con competencias en materia de protección civil, medio ambiente, patrimonio cultural y medio natural, sobre los riesgos existentes y los condicionantes medioambientales, de protección del patrimonio cultural y del medio natural que deban ser respetados en la ordenación; Igualmente se ha requerido esta información a las Juntas Administrativas del municipio respecto de los bienes y servicios de su ámbito.

IKUSIRIK, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8. eta 108. artikuluak, herritarren parte-hartzeari buruzkoak,

VISTOS los artículos 8 y 108 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, sobre participación ciudadana como principio

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

azken hori hirigintza arautzen duen oinarrizko printzipioa eta antolaketa estrukturalari eragiten dion hirigintza-plan bat idazteko beharrezko tresna operatiboa den heinean.

básico de la regulación urbanística e instrumento operativo necesario en la redacción de un plan urbanístico que afecte a la ordenación estructural.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

LEHENENGOA.- HAPO eta IAE idazteko esleipenduna den Studio Técnico Obras y Arquitectura, S.L. enpresak 2018.11.29an aurkeztu eta 3268. erregistro-zenbakiarekin sartu zen Herritarrek Parte Hartzeko Programaren proposamena onartu eta ontzat ematea.

PRIMERO.- Aprobar y dar el visto bueno a la propuesta de Programa de participación ciudadana presentada con fecha 29.11.2018 y registro de entrada Nº 3268 por la empresa Studio Técnico Obras y Arquitectura, S.L., adjudicataria de la elaboración del PGOU y EAE de Zuia.

SEIGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren egintzak guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y ejecución de este acuerdo realice las actuaciones que fueran precisas en ejecución de este acuerdo.

**6.- 2019KO OBRA TXIKIEN PROGRAMAKO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEA.**

**6.- SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PROGRAMA OBRAS MENORES 2019.**

Alkateak, hil honen 5ean izandako Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, 2019ko Obra Txikien Programaren babespean Giliernako Ur Biltegia eta Ponpaketa Estazioa Hobetzeko diru-laguntza eskatzea proposatu du, udalaren arkitekto tekniko aholkulariak 2018ko abenduan egindako memoriaren arabera.

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa celebrada el día 5 de los corrientes, propone solicitar al amparo del Programa de Obras Menores 2019 una subvención destinada a la Mejora en el Depósito de aguas y Estación de bombeo de Guillerna/Gilierna, de acuerdo con la memoria elaborada por el Arquitecto técnico asesor municipal de fecha diciembre de 2018.

Obra txikiak gauzatzeko 2019ko Programan Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeei laguntza emateko deialdia onartzen duen azaroaren 13ko Foru Gobernu Kontseiluaren 609/2018 Erabakia ikusirik.

Visto el Acuerdo 609/2018, del Consejo de Gobierno Foral de 13 de noviembre por el que se aprueba la convocatoria para la concesión de ayudas a las entidades locales del Territorio Histórico de Álava en el Programa 2019 de ejecución de obras menores.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ *azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Aipatu deialdiaren babespean Giliernako Ur Biltegia eta Ponpaketa Estazioa Hobetzeko jarduketetarako diru-laguntza eskatzea, Juan Ruiz-Cuevas udalaren arkitekto tekniko aholkulariak 2018ko abenduan egindako memoriaren arabera.

BIGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**7.- GIZARTE ZERBITZUA KUDEATZEKO BAIMENA GORBEIALDEKO KOADRILARI.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, aztergai honek ondorengo gaiak barne hartuko lituzkeela azaldu du:

- Koadrilari baimena ematea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua kudeatzeko eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailarekin dagokion Hitzarmena sinatzeko.
- Zerbitzuko teknikari berriak burutu beharreko jardunaldia.
- Gorbeialdeko Koadrilaren eta Zuiako Udalaren artean zerbitzuaren kudeaketa-baldintzak ezartzeko sinatu beharreko hitzarmena.

Zerbitzuan lanean hasiko den teknikari berriaren lanaldiaren inguruan eztabaidatu da: Aldundiaren iritziz nahikoa izango da lanaldi erdia, eta horren ehuneko laurogeia diruz lagunduko luke.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Solicitar al amparo de la citada convocatoria una subvención destinada a las actuaciones de Mejora en el Depósito de aguas y Estación de Bombeo de Guillerna/Gilierna, de acuerdo con la memoria elaborada por el Arquitecto técnico asesor del Ayuntamiento D. Juan Ruiz-Cuevas con fecha diciembre 2018.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**7.- AUTORIZACIÓN PARA LA GESTION DEL SERVICIO SOCIAL A LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA.**

El Alcalde, reiterando lo ya expuesto en una Comisión informativa, expone que este punto abarcaría estas cuestiones:

- La autorización a la Cuadrilla para gestionar el Servicio Social de Base y firmar el Convenio correspondiente con el Departamento de Asuntos Sociales de la Diputación Foral de Álava.
- Jornada a realizar por la nueva técnica del servicio.
- Convenio a suscribir entre Cuadrilla de Gorbeialde y Ayuntamiento de Zuia para establecer los términos de la gestión del servicio.

Se debate el tema respecto a la jornada de la nueva técnica que está previsto incorporar al servicio: Diputación considera suficiente una media jornada, de la cual subvencionaría el ochenta por ciento.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Alkateak dio EH-Bildu taldearen aburuz oinarrizko zerbitzu honetan lanaldi osoa bete beharko luke jardunean hasiko den pertsonak.

Ircio zinegotzi andreak esan du Koadrilako udalerri guztietan ez daudela behar berberak.

Azkenik, alkateak proposatu du gaia erabaki gabe uztea, hurrengo batean lanaldiaren inguruan erabakitzeko.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Gorbeialdeko Koadrilari, orain arte egin duen bezala, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua kudeatzeko baimena ematea eta, hala balegokio, Arabako Foru Aldundiarekin dagokion Hitzarmena sinatzeko.

BIGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren egintzak agindu eta agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**8.- 2019KO LAN EGUTEGIA.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, udaleko langileen 2019ko lan-egutegiaren proposamena (musika irakasleak kanpo) jakinarazi du, honako jardunaldi honekin, indarrean dagoen araudia aintzat hartuta: urtean 1.642 ordu, astean 37,5 ordu, ekainetik irailera (19/06/10etik 19/09/22ra, 35 ordukoa izango baita) eta abenduaren 23an eta 30ean (7,75 ordu egunean) izan ezik, 22 opor-egun gehi norberaren aukerako 6 egun, indarrean dagoen araudia kontuan hartuta. Udal-bulegoetan jendearen arretarako ordutegia (9:00etatik 14:00etara) eta lan-ordutegia

El Alcalde dice que su grupo EH-Bildu considera para este servicio básico una jornada completa de la persona prevista incorporar.

La Concejal Sra. Ircio dice que las necesidades no son las mismas en todos los municipios de la Cuadrilla.

Finalmente, el Alcalde propone dejar pendiente para un acuerdo posterior el tema de la jornada.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Autorizar a la Cuadrilla de Gorbeialdea la gestión del Servicio Social de Base como lo ha venido haciendo hasta ahora y en su caso la firma del pertinente Convenio con la Diputación Foral de Álava.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento de Zuia dicte los actos necesarios y formalice los documentos precisos en ejecución de este acuerdo.

**8.- CALENDARIO LABORAL 2019.**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, da cuenta de la propuesta del calendario laboral de los trabajadores del Ayuntamiento para el año 2019 (excluidos profesores de música), con una jornada de 1.642 horas/anuales, 37,5 horas/semana, salvo de junio a septiembre (del 10/06/19 al 22/09/19) que será de 35 y 23 y 30 de diciembre 7,75 horas/día, 22 días de vacaciones y 6 de libre disposición, teniendo en cuenta la normativa vigente. Se mantiene el horario de atención al público en las oficinas municipales de 9:00 a 14:00

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

mantenduko dira, hau da, astelehenetik ostiralera 7:45etik 15:15era, 19.06.16tik 19.09.22ra bitartean izan ezik, 8:00etatik 15:00etara eta abenduaren 23tik 30era, 7:45etik 14:30era izango baita.

Udalbatzak onartzea ERABAKI DU aho batez.

**9.- TXOSTENAK.**

Alkateak honako hauen berri ema du:

- Bi pertsonen kontratazioa, Lanbideren laguntza-deialdiaren babespean: gazte bat eta emakume bat, lanean abenduaren 26an hasiko direnak; horietako bat hiru hilabetez arituko da eta beste 5 hilabetez, eta biak ere %100eko lanaldiarekin.
- Hilabete honetako jarduera-agenda: abian jarri da komunitateko eta banakako konpostajearen gaia. Asteartean bilera egingo da auzokideekin komunitatekoaren giltza emateko; orain banakakoen fasea dago, zainaren prestakuntza Verbican kontratistaren kargura dagoen, eta banatuko diren gida txiki batzuk argitaratzea aurreikusi da. Bestalde, bilera egin da sortzaile handiekin Partzuergoaren bitartez, eta Zuiaren kasuan, organikoa uharteetan bertan bideratzera zuzenduta dago.
- Datorren larunbatean oso kontzertu berezia dago Murgiako Elizan, 19:00etan, eta berezia da erabiliko diren tresnengatik.
- Igandean, 19:00etan, helduen antzerkia egongo da.

**10.- GALDERAK ETA ESKAERAK**

Alonso zinegotzi jaunak Ahizpa Karmeldarren inguruko bankuen egoera azaldu du, horien eserlekuak hondatuta egon eta zorrotzak direlako.

horas, y el horario de trabajo de 7:45 a 15:15 horas de lunes a viernes, excepto los días comprendidos entre el 16.06.19 y 22.09.19 que será de 8:00 a 15:00 horas y el 23 y 30 de diciembre de 7:45 a 14:30 horas.

La Corporación por unanimidad ACUERDA aprobarlo.

**9.- INFORMES.**

El Alcalde informa:

- La contratación de dos personas al amparo de la convocatoria de ayudas de Lanbide: una persona joven y una mujer que comenzarán a trabajar el próximo 26 de diciembre; uno de ellos es por tres meses y el otro por 5, ambos con una jornada del 100%.
- Agenda de actividades durante este mes: se ha puesto en marcha el tema del compostaje comunitario e individual. El martes habrá una reunión con los vecinos para darles la llave del comunitario; ahora está la fase con los individuales, cuya formación será a cargo de la contratista Verbican, y se ha previsto editar unas pequeñas guías para repartir. Por otra parte, a través del Consorcio se ha mantenido una reunión con los grandes generadores, que en Zuia está encaminado a habilitar en las propias islas lo orgánico.
- El próximo sábado hay un concierto muy especial por los instrumentos utilizados, en la Iglesia de Murgia a las 19:00 horas.
- El domingo a las 19:00 horas teatro de adultos

**10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El Concejal Sr. Alonso comenta el estado de los bancos de la zona de las HH. Carmelitas cuyos asientos están deteriorados y resultan cortantes.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Lopez zinegotzi andreak eskatu du aktan jasota gera dadila bere egunean EAJ/PNV taldeak esan zuela Aldundiari ***edo dagokionari*** eskatu behar zaiola Baias ibaiko zortzi pasabideen tartean Hornidura Lanak, gobernu-taldeak udalak berak egitea proposatu zituenak, egin ditzan edo horietarako ***diru-laguntza*** eman dezan.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 21:30ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

La Concejal Sra. López dice que conste en acta lo expuesto en su día por el Grupo EAJ/PNV de solicitar a Diputación ***o a quien corresponda*** la ejecución ***o la subvención*** de las Obras de abastecimiento en el tramo de los ocho pasos del río Baias que había propuesto ejecutar el equipo de gobierno por el propio Ayuntamiento.

Y no habiendo más asuntos que tratar por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la reunión, siendo las 20:30 horas, de todo lo que como Secretario certifico.

Idazkaria / La Secretario,